



**VILLA ELISABET  
D MAILA**

**JUAN INFANTEA 18**



**Egilea eta data: Francisco Urcola; 1919**

**Deskribapena**

12 etxe atxikiz osatutako talde baten barruan dagoen txaleta, erdisotoa, bastardea eta bi goi oin dituen. Fatxada luzitua, zurezko bilbadura simulatuz, eta hegalkin azpian zurburuekin edo modiloiekin. Aldamenekoetan ez bezala, erlaitza ez da horizontala; izan ere, fatxadarekiko bi isurkiko estalki elkarzutaren aurrealdean pinoi edo hormapiko moztua agertzen da (proiektuan ez zen moztzen). Jatorrizko proiektu komuna Juan Infantea 16 zenbakiarekin.

**Babes erregimena.**

- 1.- Erregimen orokorra:
  - Plan Berezi honen D babes mailan integratzearekin loturikoa.
- 2.- Berariazko erregimena.
  - A. Babesetik kanpo utzitako kanpoko elementuak edo zatiak: ez.
  - B.- Fatxadako elementu edo zati iraunkorrak: ez.
  - C. Esku hartzeko beste irizpide zehatz batzuk: ez.